

Batuz FAQ

Galdera orokorrak

Aldaketarik gabe Galdera zk. **117** Azken berrikuspenaren data 2020-04-17

Galdera: Zer da Batuz?

Erantzuna: Bizkaiko arautegia bete behar duten enpresa eta autonomoen tributazioa kontrolatzeko estrategia (enpresa eta autonomo guztiena, tamaina gorabehera).

BATUZek hiru osagai dauzka:

- **TICKETBAI FAKTURAZIO - SOFTWARE BERMATZAILEA**
Fakturazio-sistema informatikoa da, egindako salmenta-eragiketa guztien aitortzea ziurtatzeko erabiltzen dena.
- **ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUA: 140 ETA 240 EREDUAK**
Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsonen diru sarrerak, gastuak eta fakturak aitortzeko erabili behar dira. Pertsona fisikoek 140 eredu erabili behar dute eta pertsona juridikoek 240 eredu.
- **BEZAREN, SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ETA ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN AITORPENEN ZIRIBORROAK**
140 eta 240 ereduetako informazioaz baliatuz Bizkaiko Foru Ogasunak BEZaren, sozietateen gaineko zergaren edo errentaren gaineko zergaren aitortpenen zirriborroak egingo dizkie jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona juridikoei eta pertsona fisikoei.

Galdera orokorrak

Berrikusia Galdera zk. **118** Azken berrikuspenaren data 2020-09-24

Galdera: NOIZ. Noiz ipiniko da indarrean BATUZ?

Erantzuna: BATUZ derrigorrezkoa izango da 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera; beraz, 2020. eta 2021. urtean horretara moldatzeko egin beharrekoak egin beharko dira.

BATUZ erabili behar duten pertsonak TicketBAIren baldintzak betetzen dituen fakturazio-sistema erabili beharko dute 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Gainera, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera pertsona eta entitate horiek Eragiketa Ekonomikoen Erregistro-Liburuetako informazioa bidali beharko dute Batuz

proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dituen 82/2020 Foru Dekretuan ezartzen diren epealdietan.

Hala ere, BATUZ osatzen duen atal bat borondatez bete ahal izango da 2020ko urriaren 1etik aurrera: TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturen igorpena. Norberaren borondatezko aldiak ez du Administrazioei egin behar zaien TicketBAI fitxategien bidaltzea barne hartzen, ezta Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa Eragiketa Ekonomikoen Erregistro-Liburuak eramatearen betebeharra. BATUZ borondatezko aldiak betetzearen erabakia ez zaio Administrazioari jakinarazi behar.

BATUZ bete behar duten pertsonentzat, norberaren borondatezko aldiaren hasierak esan nahi du 2020ko urriaren 1etik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiko TicketBAI fakturazio-softwarea garatzen duten entitateen erregistroan erregistratuta dagoen software bat eskuratu ahal izango dutela eta software horren bitartez TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak igorri ahal izango dituztela (QR kode eta TBAI identifikatzailearekin).

TicketBAI fakturazio-softwarea garatzen duten entitateei dagokienez, borondatezko aldiaren hasierak aipatutako erregistroan TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten softwareak erregistratzea ahalbidetzen du, horrela dagokion TBAI lizentzia lortuz.

TicketBAI fakturazio-sistemari eta Eragiketa Ekonomikoen Erregistro-Liburuei esker BATUZ estrategiaren hirugarren osagaia gauzatu ahal izango da, hau da, zergadunei laguntza eman ahal izango zaie BEZaren aitortzen zirriborroak egiteko 2022tik aurrera, eta 2022ko ekitaldiko eta hurrengo ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren eta errentaren gaineko errentaren aitortzen zirriborroak egiteko.

Galdera orokorrak

Berrikusia Galdera zk. **119** Azken berrikuspenaren data 2020-09-24

Galdera: SOFTWAREA. Non eskura daiteke TicketBAI sistemarako softwarea?

Erantzuna: TicketBAIren eskakizunak betetzen dituen softwarea merkatuan eskuratu ahal izango da, gainerako fakturazio-programa eta kontabilitate-programa guztiak bezala.

Eskakizun horiek betetzeko, TicketBAI software bermatzailearen erregistroan inskribatuta egon behar da programa. Erregistro horretan softwarea inskribatu ahal izateko ezinbestekoa da hura garatu duen pertsonak edo enpresak erantzukizunpeko adierazpena sinatzea (software bermatzailearen

zehaztapenak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen 1482/2020 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera). Software bermatzailea erregistratzeko alta-adierazpena esteka honetan egin daiteke: <https://www.ebizkaia.eus/eu/izapideen-katalogoa>

2020ko Irailaren 14tik aurrera posiblea da erregistroan inskribatzea.

Erregistroko pertsonak eta softwareak www.batuz.eus/eu/software-erregistroa web orriaren bidez aztertu ahal izango dira. Web orri horretan software-garatzailerik gisa inskribatutako pertsonak eta entitateak agertuko dira; sortutako programen izenak egongo dira, eta haien ezaugarrien berri ematen duen web orria ere bai.

Gainera, Bizkaiko Foru Ogasunak doako aplikazioa jarriko du zergadunentzat; horren bitartez TicketBAI sistemako baldintzak betetzen dituzten fakturak sortu ahal izango dituzte. Aplikazio honen bidez 100 faktura sortu ahal izango dira gehienez, sozietateen gaineko zerga edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaldi bakoitzeko. Kopuru horretatik aurrera, zergadunek TicketBAIren eskakizunak betetzen dituen softwarea erabili beharko dute.

Galdera orokorrak

Aldaketarik gabe Galdera zk. **120** Azken berrikuspenaren data 2020-09-17

Galdera: ZERGA-KENKARIAK. Nolakoa izango da zerga-kenkaria BATUZ 2020. eta 2021. urteetan ezartzeagatik?

Erantzuna: 2020. eta 2021. urteetan BATUZ sistema ezartzea sustatzeko, ekitaldi horretan BATUZ ezartzeak eragiten duen gastuaren %30eko kenkaria aplikatu ahal izango da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotan edo sozietateen gaineko zergaren kuotan; hona gastuak:

- Ekipoak eta terminalak erostea, softwarearekin eta periferikoekin, eta horiek ezartzea eta instalatzea.
- Sinadura elektronikoaren softwarea erostea, ezartzea eta instalatzea.

Galdera orokorrak

Aldaketarik gabe Galdera zk. **139** Azken berrikuspenaren data 2020-05-26

Galdera: BEHARTUTA DAUDEN PERTSONAK. Nortzuek erabili behar dute BATUZ?

Erantzuna: BATUZ nahitaez erabili behar dute pertsona juridikoek eta jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek eta nortasun juridikorik gabeko pertsonak, eragiketen tamaina edo bolumena gorabehera, baldin eta Bizkaiko arautegia bete behar badute pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren gaineko errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak) ordaintzeko.

Halaber, BEZaren ordainketan informazioa berehala emateko (IBE) sistema aplikatu behar duten pertsonak eta entitateek ere BATUZ erabili behar dute. Nolanahi ere, Eragiketa Ekonomikoen Erregistro-Liburuetan IBEko informazioa eta betebeharrak txertatu behar dira, eta horregatik nahikoa da informazioa behin bakarrik bidaltzea.

Galdera orokorrak

Berrikusia Galdera zk. **140** Azken berrikuspenaren data 2020-09-24

Galdera: EZARPENA. Zer egin behar da BATUZ sistema erabiltzeko?

Erantzuna: BATUZ erabili behar duten pertsonak eta entitateak:

- TicketBAIren betekizun berrietara egokitu behar dituzte beren fakturazio-sistemak. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak fakturak egiteko prestatuko duen aplikazioaz baliatu ahal izango dira Batuz proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dituen 82/2020 Foru Dekretuan ezartzen diren kasuetan.
- Eragiketa Ekonomikoen Erregistro-Liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan eraman beharko dituzte (mezu informatikoen bidez edo egoitzan formularioak betez). Beraz:
 - Betebehar berria ezarri zaie pertsona juridikoei, orain arte ez dute eduki erregistro-libururik eraman beharrik eta.
 - Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek 140 ereduak aurkeztu beharko dute orain arte bezala, baina BATUZ ezarri ondoren Egoitza Elektronikoaren bidez egin beharko dute.

Galdera orokorrak

Berrikusia Galdera zk. **141** Azken berrikuspenaren data 2020-09-24

Galdera: ZEHAPENAK. Nolako zehapenak ezarriko dira BATUZ ez betetzeagatik?

Erantzuna: Ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dituen 5/2020 Foru Arauan adierazita daude Batuz betebeharrak urratzeagatik ezarriko diren zehapenak. Foru arauaren arabera, TicketBAI softwarea bermatzailea falta izanez gero, negozioaren zifraren %20ko zehapena ezarriko da (gutxienez 20.000 euro). Zehapen bat jasotzen duenak berriz ere arau-hauste bera eginez gero, negozioaren zifraren %30eko zehapena ezarriko zaio (gutxienez 30.000 euro).

Ez-betetzea noizbehinkakoa denean, zehapena 2.000 eurokoa izango da eragiketa bakoitzeko, ez-betetzea egin den eragiketari dagokionez. Ez-betetzea noizbehinkakoa dela pentsatuko da baldin eta osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatikorik erabili gabe egin diren eragiketen zenbatekoa ez bada arau-haustea egin den zergaldiko negozio kopuruaren 100eko 2tik gorakoa.

Softwarea eta agiri informatikoak deuseztatu, ezabatu edo aldatuz gero, negozioaren zifraren % 20ko zehapena ezarriko da, gutxienez, 40.000 euroko zigorrekin. Arau-haustea behin eta berriz egitean % 30eko zehapena ezarriko da, gutxienez, 60.000 euroko zigorrekin. Era berean, iruzurra gauzatzeko softwareak garatzen dituzten enpresei zehapenak ezarriko zaizkie, eta, hala, software hori erabiltzen duten enpresen zehapen bera jasoko dute.

Zehapen horiek guztiak % 30 murriztuko dira adostasuna adierazi eta zenbatekoak ordainduz gero.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 1

Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera:

Zer da TicketBAI?

Erantzuna:

TicketBAI Foru Ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu erkidea da, zergadunen fakturazio-softwareetan betebeharrak legal eta tekniko batzuk ezartzea helburu duena. Obligazio horiei esker zerga-administrazioak zergadun horien jardura ekonomikoen diru-sarrerak kontrolatu ditzake eta, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egiten dizkieten, eta neurri handi baten eskudirutan kobratzen direnak, sektoreetako jarduerak.

Euskal erakundeek zerga-arloan dituzten helburu nagusietako bi zergapekoei zerga-betebeharrak betetzen laguntzea eta zerga-iruzurraren aurka borrokatzea dira, pertsona guztiak euren ekonomia-ahalmenaren arabera karga publikoei eusten laguntzen dutela bermatzeko, horixe baita ongizate-estatua, gure Herrian adostasun sozial eta politiko handiena duen bizikidetzaren eredu, eraikitzearen oinarriko elementua.

Ikuspegi bikoitz horretatik abiatuta erakundeak etengabe daude sartuta euren lan-sistemak eta -prozedurak era iraunkorrean hobetzeko eta modernizatzeko prozesuan, zergadunei ahalik eta gehien errazteko euren betebeharrak betetzea eta, aldi berean, ahalegin handia egiten dute zerga-iruzurraren aurkako borrokaren eragingarritasuna eta efizientzia areagotzeko, hau da, euren borondatez zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten eta herritarrekiko gehieneko elkartasunik eza erakusten duten pertsonen aurkako borrokari dagokionez.

Helburu bikoitz hori gauzatu ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoko foru-ogasunek informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrerapenek eskura jartzen dituzten bitarteko guztiak erabiltzen dituzte, eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunekiko laguntzari eta kontrolari dagokionez, elementu berritzaileenetakoa TicketBAI da. TicketBAIren helburua jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsonen eta erakundeek egindako salmenta-eragiketa guztien aitortzea bermatzea da; horretarako kontuan hartu da gure inguruko herrialdeek esparru horretan duten esperientzia eta Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (aurrerantzean ELGE) 2013ko eta 2017ko txostenetan jasotako gomendioekin bat etorriz (txosten horien izenburuak "Salmenten ezabatze elektronikoa: diru-sarrera fiskalen mehatxua" eta "Zerga ihesari eta iruzur fiskalari aurre egiteko tresna teknologikoak" dira, hurrenez hurren eta, horiei 2019ko martxoaren 28an argitaratu zen "Implementing Online Cash Registers: Benefits, Considerations and Guidance" txostena gehitu behar diegu.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **2** Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera: Zergatik ezartzen da TicketBAI?

Erantzuna: Egungo egoera teknologikoak aukera ematen duelako une honetan ezartzeko, zergadunari eskaintzen zaion laguntza eta zerga-kontrola hobetzeko.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **4** Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera: Zer eragiketa-motari eragiten dio TicketBAI?

Erantzuna: TicketBAI ondasun-emateei eta zerbitzugintzei aplikatzen zaie. Ondorio horietarako, ondasun-ematetzat eta zerbitzugintzatzat hartuko dira BEZa arautzen duen legerian halakotzat definitutako eragiketak.

TicketBAIren helburua zergadunek egindako ondasun-emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzea da, bai fakturena, bai eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoko edo paperezko beste edozein dokumenturena.

Beraz, TicketBAI faktura jaulkitzeko betebeharra duten eragiketei aplikatzen zaie (Fakturazioaren Erregelamenduaren 2. artikulua aplikatuz), bai eta betebeharrorretatik salbuetsitako eragiketei ere (Erregelamendu beraren 3. artikulua aplikatuz). Bigarren kasu horretan TicketBAI ondasunak emateko edo zerbitzugintzak egiteko eragiketen agiriei edo egiaztatagiriei aplikatuko zaie.

TicketBAIren aplikazio-eremutik kanpo bakarrik daude ondasun-ematetzat eta zerbitzugintzatzat hartzen ez diren eragiketak.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 5

Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera: Ba dago TicketBAI sistematik kanpo geratzeko kasurik?

Erantzuna: Bai.

Bizkaiaren kasuan, Batuz sistema ezartzen duen 5/2020 Foru Arauan zehazten dira faktura egin aurretik TicketBAI fitxategirik sortu behar ez duten eragiketa jakin batzuk. Hona hemen eragiketa horiek:

- Baldintza berezietan laburpen-idazpenak egiteko zerga-administrazioaren baimena lortu dutenak, baldin eta ikusten bada kasuan kasuko jarduerasektoreko merkataritza- edo administrazio-praktikek, edo fakturak eta kontabilitate-egiaztatagiriak egiteko baldintza teknikoek, oztopatzen badute aipamen eta informazio horiek jasotzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, faktura jaulkitzearen betebeharra maila materialean eragiketaren hartzaileak betetzen duenean, betiere azken horri ez bazaio era eragingarrian aplikatzen Bizkaiko Lurralde Historikoko edo Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetako zerga-araudia.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen

Erregelamenduaren bigarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan aipatzen direnak.

- BEZari buruzko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikulua Bat atalean adierazitako BEZetik salbuetsitako eragiketa hauek, Sozietateen gaineko Zergatik guztiz edo partzialki salbuetsitako eragiketak dituzten entitateek edo irabazi-asmorik gabeko entitateei aplikatu beharreko zerga-araubide bereziari atxikitako entitateek egindakoak:
 - BEZari buruzko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikuluko Bat ataleko 8. zenbakia: zuzenbide publikoko erakundeek edo izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuek emandako gizarte laguntzako zerbitzugintza jakin batzuk.
 - BEZari buruzko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikuluko Bat ataleko 13. zenbakia: kirola edo gorputz-hezkuntza egiten duten pertsona fisikoei emandako zerbitzuak, betiere zerbitzu horiek praktika horiekin zuzenean lotuta badaude eta zenbaki horretan adierazitako pertsona edo erakundeek ematen badituzte.
 - BEZari buruzko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikulua Bat atalaren 14. zenbakia: zuzenbide publikoko erakundeek edo izaera sozialeko kultura-erakunde edo -establezimendu pribatuek emandako zerbitzugintza jakin batzuk (besteak beste hauek bezalakoei lotuta dauden berezko zerbitzuak: liburutegiak; museoen bisitak; antzerki-emanaldiak edo erakusketak antolatzea).

Kasu horietan, faktura horiei buruzko informazioa eskema hauen bidez bidali beharko da:

- Pertsona fisikoen Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Libururako (EEEL) (140 eredu): 1.2.- Diru-sarrerak Software bermatzailerik gabe egindako faturekin.
- Pertsona juridikoen EEELrako (240 eredu): 1.2.- Software bermatzailerik gabe egindako fakturak.

Beste alde batetik, zergadunak salbuetsita egongo dira fakturaren "QR" kodea sortzeko betebeharra betetzetik, baldin eta eragiketa horien hartzailea jarduera ekonomikoaren garapenean jarduten duen enpresa- edo lanbide-jarduera gauzatzen duen pertsona edo erakunde bat edo administrazio publiko bat bada, BEZari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 7. artikulua 8. Ataleko B) letran ezarritakoaren arabera, eta jatorriz irakurri ezina den formatu elektronikoko batean jaulkitzen direnak.

Gainera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du TicketBAIren betebeharren bat edo guztiak betetzetik salbuesteko aurrekoek bestelako eragiketei dagokienez, baldin eta baldintza horiek betetzea eragozten duten salbuespenezko inguruabar teknikoak gertatzen badira. Salbuespen hori aldi baterako izango da eta eragiketa horiekin lotutako betebeharrak horiek betetzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko konpromisoaren mende

egongo da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 6

Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera: Zeintzuk dira TicketBAIren oinarritzko funtzionamendu-ildoak?

Erantzuna: TicketBAI sistemaren baldintzak ezartzen dituen fakturazio-softwareak (Bizkaian "software bermatzailea" deitua), faktura bat jaulkitzen duen bakoitzean, honako prozesu hau jarraitu beharko du:

- XML fitxategi bat sortu beharko da, TicketBAI formatuaren eskemaren diseinua eta edukia betetzen dituen. Fitxategi horri "TicketBAI fitxategia" deitzen zaio.
- TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatu beharko da.
- Fakturaren irudia sortuko da, formatu fisikoan edo elektronikoa. Fakturaren irudiak TicketBAI sistemak eskatzen dituen bi eduki ditu: TicketBAI identifikatzailea eta QR TicketBAI kodea. Bi eduki horiek sortzeko beharrezkoa da sinatutako TicketBAI fitxategiaren sinaduraren zati bat erabiltzea.
- TicketBAI fitxategia dagokion euskal zerga-administrazioari bidaliko zaio, hark ezarritako epe eta formatuen barruan.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 7

Azken berrikuspenaren data 2020-10-13

Galdera: TicketBAI fitxategi bat sortu behar da faktura elektronikoen kasuan?

Erantzuna: Faktura elektronikoen kasuan ere, faktura sortu aurretik XML fitxategi bat sortu beharko da, TicketBAI formatuaren eskemaren diseinua eta edukia betetzen dituen. TicketBAI fitxategi hori elektronikoki sinatu beharko da.

Hala ere, hartzailea enpresaburu edo profesional bat edo administrazio publiko bat duten faktura elektronikoen kasuan ere, faktura sortu aurretik XML fitxategi bat sortu beharko da, TicketBAI formatuaren eskemaren diseinua eta edukia betetzen dituen. TicketBAI fitxategi hori elektronikoki sinatu beharko da.

Hala ere, hartzailea enpresaburu edo profesional bat edo administrazio publiko bat duten faktura elektronikoen kasuan ere, faktura sortu aurretik XML fitxategi bat sortu beharko da, TicketBAI formatuaren eskemaren diseinua eta edukia betetzen dituen. TicketBAI fitxategi hori elektronikoki sinatu beharko da.

Hala ere, hartzailea enpresaburu edo profesional bat edo administrazio publiko bat duten faktura elektronikoen kasuan ere, faktura sortu aurretik XML fitxategi bat sortu beharko da, TicketBAI formatuaren eskemaren diseinua eta edukia betetzen dituen. TicketBAI fitxategi hori elektronikoki sinatu beharko da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 8

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Non agertu behar du TicketBAI identifikatzaileak eta QR kodeak, jaulkitako fakturak hainbat orrialde baditu?

Erantzuna: TicketBAI identifikatzailea eta QR TicketBAI kodea fakturaren azken orrian sartu behar dira.

Aukeran, gainerako orrialdeetan sar daiteke.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berrikusia

Galdera zk. 9

Azken berrikuspenaren data 2020-11-05

Galdera: TicketBAI fitxategiak EAEko zerga-administrazioetara bidali behar dira?

Erantzuna: Bai, euskal zerga-administrazio bakoitzak ezarritako epeetan, TicketBAI sistemara behartuta dauden pertsona guztiek XML TicketBAI fitxategiak bidali beharko dituzte, jaulkitako fakturen edukiarekin sinatuta.

Bizkaian, XML TicketBAI fitxategia ez da zuzenean bidaltzen, baizik eta EEELren hurrengo oharren barruko "TicketBAI" eremuan, Base64an kodifikatuta:

- 1.1 - Diru-sarrerak Software bermatzailearekin egindako fakturekin. (140 eredu).
- 1.1 - Software bermatzailearekin egindako fakturak (240 eredu).

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. 10

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Hirugarren batek sor ditzake TicketBAI fitxategiak zergapekoaren izenean?

Erantzuna: Bai. TicketBAI sistema fakturak egiten dituen zergadunak bete beharko du. Hala ere, fakturak jaulki ahal izango dituzte, zergadunaren izenean eta haren kontura, honako hauek: bere ordezkariak (adibidez, aholkulari batek), hirugarren batek edo, hala badagokio, eragiketaren hartzaileak, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

Horretarako, pertsona horietako bakoitzak TicketBAI sistemak TicketBAI fitxategi

elektronikoak sinatzeko aukera ematen duen ziurtagiri elektronikoren bat izan beharko du: pertsona fisikoaren ziurtagiria, gailuarena, etab.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **11**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Noiz bidali behar zaizkie TicketBAI fitxategiak EAeko zerga-administrazioei?

Erantzuna: Euskal zerga-administrazio bakoitzak bere araudian ezarriko du TicketBAI fitxategiak bidaltzeko epea.

Bizkaiaren kasuan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko epea eragiketa egiten den unetik gehienez apirilaren 25era, uztailaren 25era, urriaren 25era eta urtarrilaren 31ra artekoa da, eragiketa zein hiruhilekotan egin den kontuan hartuta.

Hala ere, enpresa handiek, BEZaren ondorioetarako erakunde-talde batean sartutako enpresek eta hileroko itzulketa-erregistroan sartutako zergadunek TicketBAI fitxategiak bidali beharko dituzte eragiketa egin eta 4 eguneko epe orokorrean, salbuespenik ezean (SII, informazioa berehala emateko, sistemaren epeak aplikatuko dira).

Gainerako euskal administrazioen kasuan epe hori aldatu ahal izango da, TicketBAI fitxategiak berehala bidaltzeko eskatzen denetik, eragiketari dagokion faktura sortu eta jaulki bezain laster, bidalketa aldizkakoa izan arte, hiru hilean behin gehienez ere.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **12**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Zer egin behar da TicketBAI fitxategiak ez badira bidali epe egokian?

Erantzuna: Ezarritako epeetan bidali ez diren TicketBAI fitxategiak, hori gorabehera, zerga-administrazioari bidali behar zaizkio, baina kasu horietan bidalketak epez kanpo egin direla ulertuko da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **13**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) erregistro-liburuetan gaur egun dagoen informazio bera bidali behar da?

Erantzuna: Ez, TicketBAIren bidez BEZaren fakturen erregistro-liburuari buruzko informazioa soilik bidaltzen da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **14** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI fitxategiak faktura sortu duena ez den gailu batetik bidal daitezke?

Erantzuna: Bai, TicketBAI fitxategia faktura sortzen den gailuan sinatu behar bada ere, administrazioari beste gailu batetik bidali ahal izango zaio (adibidez, zerbitzari zentral batetik).

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **15** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Zer abantaila ditu TicketBAIra behartuta dagoen zergadunak?

Erantzuna: Hona hemen nabarmendu daitezkeen abantailetakoz batzuk:

- Lehia babestea, zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten zergadunek hala egiten dutenekiko onura jasotzea saihestuz, hala egiten dutenekiko.
- Betebehar formalak murriztea eta zerga-betetzearen kostuak murriztea (zergetan jaulkitako faktura-liburuak egoitza elektronikoa betez, jaulkitako fakturazioari dagozkion administrazio-eskakizunak murriztuz, itzultzeko epeak murriztuz eta jaulkitako fakturak online egiaztatzeko aukera emanez).
- Bezeroei aukera ematea negozioak bere zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko, jaulkitako fakturen osotasuna eta identifikazioa bermatzen baitira.
- Ogasunaren eta enpresaburuen eta profesionalen arteko harremanak digitalizatzen laguntzea.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **16** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Noiztik aplikatzen da TicketBAI?

Erantzuna: Bizkaian, TicketBAI borondatez bete ahal izango da 2020ko urriaren 1etik aurrera, eta nahitaez bete beharko da 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, bai jarduera ekonomiko bat garatzen duten pertsona fisikoek, bai SZren zergadunek. Gainerako euskal zerga-administrazioek TicketBAI derrigorrez eskatzeko euren data ezarriko dute.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. 17 Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Laburbilduz, zer informazio jaso behar dute TicketBAI fitxategiek?

Erantzuna: Oro har, TicketBAI fitxategiek honako informazio hau dute:

- **A) Subjektuak:** igorlea, hartzaileak, hainbat hartzaile eta hirugarrenek edo hartzaileek jaulkitako faktura.
- **B) Faktura - Fakturaren goiburua:** faktura-seriea, faktura-zenbakia, jaulkipen-data, jaulkipen-ordua, faktura sinplifikatua, faktura sinplifikatuaren ordeztutako faktura, faktura zuzentzailea eta zuzendu edo ordeztutako fakturak.
- **C) Faktura - Fakturaren datuak:** eragiketaren data, fakturaren deskribapena, fakturaren zenbatekoa guztira, kostuko zerga-oinarria, eta BEZaren araubideen eta zerga-eragina duten eragiketen gakoak.
- **D) Faktura - Fakturaren banakapena/Eragiketa motaren banakapena:** besteak beste, lotua den, salbuetsia den, salbuespen-arrazoia, salbuetsitako zerga-oinarria, salbuetsi gabeko tasa, etab.
- **E) TicketBAI aztarnak:**
 - E.1) Aurreko fakturarekiko kateamendua.
Seriea, faktura-zenbakia eta aurreko fakturaren jaulkipen-data.

Aurreko fakturari dagokion TicketBAI fitxategiko sinadura. Aurreko fakturako TicketBAI fitxategiko SignatureValue eremuko lehen ehun karaktereetara murriztuko da, tamaina beharrik gabe ez handitzeko.

- E.2) Softwarea.
TicketBAI lizentzia, dagokion software-erregistroak emana, dagokion software-erregistroan inskribatutako erakunde garatzailea eta dagokion software-erregistroan inskribatutako fakturazio-softwarearen izena eta bertsioa.
- E.3.) Gailua.
Fakturak jaulkitzeko gailua identifikatzea. Datu hori ez da nahitaezkoa.

- **F) Fakturaren sinadura.**

Bizkaian, softwarearen erregistroa "TicketBAI" software bermatzailearen erregistroa izango da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **18**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Laburbilduz, zer informazio gehitu behar zaie TicketBAI sistema aplikatzen eratorritako fakturei?

Erantzuna: Fakturaren irudia sortzeko TicketBAI baldintzak nahitaezkoak izango dira faktura baten irudia sortzeko, bai paperezko euskarri baten, bai formatu elektronikoan (adibidez, PDF).

Zehaztapen horiek ez dute fakturazio-araudia aldatzen, eta ez diote araudi horri betekizun gehigarririk gehitzen. TicketBAI sistemaren zehaztapenak faktura egiten duen zergadunak PFEZaren eta SZren esparruan bete behar dituen betebeharrak baino ez dira.

Fakturazio-softwareak TicketBAI identifikatzaile bat eta QR TicketBAI kode bat sortu eta sartu beharko ditu fakturan:

- TicketBAI identifikatzailea zenbakiz, letraz eta beste karaktere batzuek osatutako kode bat da, TicketBAI sistemaren barruan faktura identifikatzen duena. Iturriaren tipoa eta tamainak fakturaren gainerakoaren antzekoak izan beharko dute, eta ziurtatu egingo da fakturaren hartzaileak irakurri ahal izango duela.
- QR TicketBAI kodea 30x30 milimetro edo gehiagoko eta 40x40 milimetro edo gutxiagoko QR formatuko kode bat da.

Dokumentuaren identifikazio-kodearen eta QR kodearen zehaztapenak Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren irailaren 9ko 1482/2020 Foru Aginduan zehazten dira; agindu horren bidez software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dira.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **19**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Alda al daitezke TicketBAI sistemaren bidez jaulkitako faktura baten datuak?

Erantzuna: Faktura ezin da aldatu aurretik TicketBAI fitxategi berri bat sortu gabe.

Aurreko faktura bateko errore bat zuzentzeko faktura berri bat jaulki behar bada, aldeztu aurretik TicketBAI fitxategi bat sortu behar da.

Kasuen arabera, faktura berria faktura zuzentzailea izan daiteke, edo faktura berria izan daiteke aurreko faktura baliogabetu ondoren; kasu horretan aldeztu aurretik baliogabetzeko TicketBAI fitxategi bat sortu beharko da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **20** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Baliogabetu al daiteke TicketBAI sistemak jaulkitako faktura bat?

Erantzuna: Bai. Horretarako, baliogabetzeko TicketBAI fitxategia sortu behar da.

Egoera batzuetan, indarrean dagoen araudiaren arabera, faktura zuzentzaileak egin behar dira, eta faktura horietan beharrezkoa da jaulkitako fakturari baja ematea edo baliogabetzea eta, hala badagokio, egindako eragiketa behar bezala jasotzen duen faktura berri bat egitea: adibidez, faktura bat oker egiten denean inoiz gauzatu eta egin ez den eragiketa batengatik, eta faktura hori baliogabetzea bidezkoa denean. Kasu horretan, egin ez den eragiketaren faktura baliogabetzeko, baliogabetzeko TicketBAI fitxategia erabili beharko da. Hori dela eta, baliogabetzeko TicketBAI fitxategian igorlea eta seriea, eta baliogabetutako fakturaren zenbakia eta jaulkipen-data baino ez dituzu identifikatu beharko.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **21** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI sistemak jaulkitako faktura bat ezeztatu ondoren, TicketBAI faktura bat jaulki daiteke ezeztatutako fakturaren serie eta zenbaki berarekin?

Erantzuna: Ez. Ezin da berriro erabili baliogabetutako fakturaren zenbaki eta serie bera; izan ere, faktura baliogabetzen bada ere, baliogabetu nahi den fakturari dagokion XML TicketBAI fitxategia eta baliogabetzeko XML TicketBAI fitxategia zerga administrazioari bidali behar zaizkio.

Bizkaian, bidalketa hori "Diru-sarrerak Software bermatzaileak gabe egindako fakturekin" (pertsone fisikoentzat) eta "Software bermatzaileekin egindako

fakturak" (pertsona juridikoentzat) azpikapituluetako web-mezuen barruan egin behar da.

Fakturaren zenbakiaren eta seriearen informazioa erregistroaren gako bakarraren parte dira (faktura baliogabetu arren), eta ezin dira berriro erabili beste eragiketa baterako.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **22** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Zer gertatzen da TicketBAI fitxategi bat atzera botatzen bada XMLa oker sortu delako?

Erantzuna: Bizkaiaren kasuan, faktura ezeztatu edo zuzendu behar ez den kasu bat bada, eragiketak honako hau izan beharko du: kontuan hartuta TicketBAI fitxategia ezin dela berriro sortu eta bere informazioa bidali egin behar dela, igorketa hori "Diru-sarrerak Software bermatzailerik gabe egindako faturekin" (pertsona fisikoen kasuan) eta "Software bermatzailerik gabe egindako fakturak" (pertsona juridikoen kasuan) azpikapituluei dagokien web-mezuarekin egin beharko da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **23** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Zer gertatzen da hondatu den eta oraindik fitxategiak administrazioari bidali ez dizkion gailu baten TicketBAI fitxategiak berreskuratu ezin badira?

Erantzuna: Bizkaiaren kasuan hondatutako gailuak jaulki dituen XML TicketBAI fitxategiak berreskuratu ezin badira, eragiketa horiei dagokien informazioa berdin bidali behar da. Bidalketa hori "Diru-sarrerak Software bermatzailerik gabe egindako faturekin" (pertsona fisikoentzat) eta "Software bermatzailerik gabe egindako fakturak" (pertsona juridikoentzat) azpikapituluei dagokien web-mezuarekin egin beharko da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **24** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: BEZari dagokionez Erakunde Taldeen Araubide Bereziari atxikitako erakundeen

kasuan, nork hornitu behar ditu elektronikoki TicketBAI fitxategiak?

Erantzuna: Taldea osatzen duten erakundeetako bakoitzak.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **25** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAIren bidez zergadun batek jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa emango da?

Erantzuna: Ez.

Bereziki, Bizkaian, pertsona fisikoek informazio hori Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuaren "Fakturarik gabeko diru-sarrerak" azpikapitulan igorri beharko dute.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **26** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI bete behar duen batek, TicketBAI sistemarekin jaulki behar ditu atzerrian dituen establezimendu iraunkorren fakturak?

Erantzuna: Ez. Atzerrian kokatutako establezimendu iraunkorren bidez egindako fakturak, jarduerari dagozkionak, ez daude TicketBAI sistemari lotuta.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **27** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI sistema betetzeak 347 eta 349 ereduak betetzetik salbuesten du?

Erantzuna: Foru aldundien zerga-administrazio bakoitzaren mende dago.

Bizkaiaren kasuan, Batuzen barruan, Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuaren kapituluak bidaltzeak ordeztu egingo du 347 ereduko aitortpena aurkeztea (hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena), baina ez 349 eredukoa (EBko subjektu pasiboekin egindako eragiketen kapitulukako laburpena).

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **28**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Fakturen kopiak TicketBAI sistemaren bidez egin behar dira?

Erantzuna: TicketBAI sistemak XML fitxategi sinatua sortzera eta bidezko Foru Ogasunera bidaltzera behartzen du. Beraz, ez da iristen fakturazio erregelamenduaren 14. artikuluan aipatzen diren faktura baten kopiak jaulkitzeko kasuetara. TicketBAI fitxategi bati dagozkion fakturaren bikoiztuek jatorrizko fakturaren QR kode eta TicketBAI identifikatzaile bera izan behar dute, eta "bikoiztuta" dagoela adierazi behar da, baina ez besterik. Hau da, ez dira sinatuta egon behar, ez dira Foru Ogasunera bidali behar, ez dira jaulkitako fakturen kapituluan idatzi behar, etab.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **29**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Albaranak TicketBAI sistemaren bidez jaulki behar dira?

Erantzuna: Ez.

TicketBAI sistema faktura jaulkitzeko betebeharra duten eragiketei aplikatzen zaie (fakturazio erregelamenduaren 2. artikulua aplikatuz), bai eta betebeharrorretatik salbuetsitako eragiketei ere (erregelamendu beraren 3. artikulua aplikatuz). Bigarren kasu horretan, TicketBAI ondasunak emateko edo zerbitzuak emateko eragiketen agiriei edo egiaztagiriei aplikatuko zaie, eta emandako egiaztagiri bakoitzari dagozkion XML TicketBAI fitxategiak sinatu beharko dira.

Albaranen kasua bestelakoa da; izan ere, ondasun edo zerbitzu bat eman izanaren egiaztagiri gisa balio duten merkataritza-dokumentuak badira ere, ez dute faktura jaulkitzeko betebeharririk salbuesten. Eragiketaren faktura izango da, eta ez albarana, TicketBAI ezartzen dituen baldintzak betez sortu eta bidali beharko dena.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria

Galdera zk. **30**

Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAIren bidez jaulki behar al dira nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako

araubide bereziari atxikitako eragiketen hartzaile diren enpresaburuek edo profesionalak igortzen dituzten ordainagiriak?

Erantzuna: Ez, ez baita jaulkitako faktura bat, baizik eta eragiketaren hartzaileak jaulkitako dokumentu bat.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **31** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: Ordezkoak justifikatzen dituzten dokumentuak TicketBAI sistemaren bidez jaulki behar dira?

Erantzuna: Faktura baten, adibidez, profesional baten ordainsariez gain ordezkotako dokumentatzen bada, ordezkotako zenbatekoa ez da BEZaren zerga-oinarrian sartuko, baina faktura horiek ere TicketBAI baldintzak bete behar dituzte.

Aitzitik, ordezkotako bat baino dokumentatu nahi ez balitz, eragiketa horretan ez litzateke dokumentatuko profesionalak bere jardura garatzean egindako ondasun-ematerik edo zerbitzugintzarik; izan ere, kasu horietan enpresaburuak bitartekari soil gisa jardungo luke, eta bezeroaren diru-kopuruak ordainduko litzioke hirugarren bati, bere bezero horrek berariaz agindua emanda. Kasu horretan ez litzateke faktura egin beharrik izango fakturazio erregelamenduan xedatutakoaren arabera, eta eragiketa agiri baten edo beste egiaztatutako baten dokumentatu ahal izango da. Beraz, TicketBAIren aplikazio-eremutik kanpo geratuko litzateke ordezkotako bakar baten berri ematen duen dokumentu bat.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **32** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI sistema aplikatu behar zaie konturako gordailuei eta funts-hornidurei?

Erantzuna: TicketBAI ordainketa aurreratuei eta funts-hornidurei buruzko fakturei ere aplikatu behar zaie, fakturazio erregelamenduaren 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia, ondasuna edo zerbitzua emateagatik faktura egitea gorabehera da.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **33** Azken berrikuspenaren data 2020-10-14

Galdera: TicketBAI sistema betetzeak Informazioa Berehala Emateko Sistematik (IBES) salbuesten du?

Erantzuna: Bizkaiaren kasuan IBESra behartuta dauden zergadunek TicketBAI sistema eta dagokion Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuaren sistema betez beteko dute obligazio hori. Hau da, ez dute IBESko informazioa aparte bidali beharko.

TicketBAI

Gai orokorrak

Berria Galdera zk. **34** Azken berrikuspenaren data 2020-11-20

Galdera: TicketBAI faktura oso batean (erraztuaren markarik ez duena) eragiketaren hartzailea identifikatu behar al da?

Erantzuna: Bai. Fakturazio Erregelamenduaren 6. artikulua arabera, fakturan eragiketen hartzailearen izen-abizenak, sozietate-izen osoa agertu beharra dago. Era berean, eragiketen hartzailearen EBko edozein estatu kidetako zerga-administrazio eskudunak esleitutako IFZ agertu beharko da honako kasu hauetan:

1. BEZari buruzko Foru Arauaren 25. artikulua arabera salbuetsita dagoen beste estatu kide bati zuzendutako ondasunak entregatzea.
2. Eragiketa horren hartzailea hari dagokion BEZaren subjektu pasiboa izatea.
3. Zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzen diren eragiketak izatea, eta faktura egitera behartuta dagoen enpresaburuak edo profesionalak lurralde horretan finkatutzat jo behar izatea.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **103** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Zer da Batuz kenkaria? Zer sustatzen du? Non arautzen da?

Erantzuna: Batuz sistemara behartuta dauden zergadunen PFEZaren edo sozietateen gaineko zergaren kuota murrizteko aukera ematen duen kenkaria da; zehazki, Batuz sistema ezartzeko beharrezkoak diren eta 2020. eta 2021. urte naturaletan egiten diren inbertsio eta gastuen % 30 murrizteko aukera ematen du. Hauek ematen dute kenkaria egiteko eskubidea:

- a) Ekipamenduak eta terminalak eskuratzeak, softwarea eta lotutako periferikoak barne, Batuz-en betebeharrak bete ahal izateko.
- b) Jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-

prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroei dagozkien betebeharrak betetzeko ezarri beharreko sinadura elektronikoko softwarea eskuratzeak.

- c) Ekipamendu eta sistema horiek instalatu eta ezartzeak. Batuz kenkaria Batuz sistema ezartzen duen uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauan ezarritako xedapen hauetan arautzen da: sozietateen gaineko zergari buruzko foru-arauaren hogeita bosgarren xedapen iragankorra, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauaren hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauaren bigarren xedapen iragankorra.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **104** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Zein alditako inbertsio eta gastuek izan dezakete Batuz kenkaria?

Erantzuna: 2020. eta 2021. urte naturaletan (hau da, 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra) egindako inbertsio eta gastuek soilik emango dute Batuz kenkarirako eskubidea, zergadunaren zergaldia edozein izanda ere.

Hau da, Sozietateen gaineko zergaren zergadunentzat, 2020. eta 2021. urte naturaletan egindako inbertsioak eta gastuak baino ez dira pizgarriak izango, baita inbertsio eta gastu horiek 2019. urtean hasitako eta 2020. urtean amaitutako zergaldi batean edo 2021. urtean hasitako eta 2022. urtean amaitutako zergaldi batean sartzen badira ere, zergadunaren aldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **105** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Zer gastu eta inbertsio sustatzen ditu Batuz kenkariak? Noiz jotzen da egindakotzat gastua edo inbertsioa: egiten denean edo ordaintzen denean?

Erantzuna: Kenkariak 2020. eta 2021. urte naturaletan Batuz sistema ezarri ahal izateko egindako jarduketari dagozkien gastuak eta inbertsioak baino ez ditu barne hartzen, hau da, zergadunak sistema 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera bete ahal izateko behar-beharrezkoak diren software-baliabide materialak eta ekipa informatikoak edukitzeko baino ez. Ondorio horietarako, ez da garrantzitsua zenbateko horiek noiz ordaintzen diren; izan ere, sistemara egokitzeko inbertsioa eta/edo gastua noiz egiten den hartu beharko da kontuan, eta

inguruabar hori 2020. eta 2021. urte naturaletan bete beharko da.

Bestalde, kenkaria egiaztatzeko aurkezten diren dokumentuetatik ondorioztatu beharko da, halaber, zergadunari sistema ezartzeko beharrezkoak diren 2020. eta 2021. urte naturaletan egindako gastu eta inbertsio horiekin bat datozela.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **106** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Zer zergadunek aplikatu dezakete Batuz kenkaria?

Erantzuna: Zergadun hauek aplikatu dezakete Batuz kenkaria:

- Jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoek.
- Pertsona juridikoek eta sozietateen gaineko zergaren gainerako erakunde zergadunek. Bereziki eta salbuespenez, ondare-sozietatetzat hartzen diren sozietateen gaineko zergaren zergadunek sortu eta aplikatu dezakete kenkari hori.
- Establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten zergadun ez-egoiliarrek.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **107** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Sozietateen gaineko zergan, zer baldintzatan aplikatu daiteke Batuz kenkaria? Eragiten dio gutxieneko tributazioaren arauak? Eragiten die kuota likidoaren gaineko 100eko 35eko edo 100eko 70eko mugek?

Erantzuna: Batuz kenkaria kuota osoari aplikatzen zaion kenkaria da; beraz, kuota likidoa Ora murriztu dezake. Hau da, kenkari horren aplikazioa ez du mugatzen gutxieneko tributazioaren arauak. Era berean, kenkari horren aplikazioari ez diote eragiten kuota likidoaren gaineko kenkarietarako aurreikusitako aplikazio-mugek (kuota horren 100eko 35 edo 100eko 70), baina mugatzen dute zergaren benetako kuota kalkulatzeko inbertsioengatik eta gastuengatik kenkari gehienen ordeztzea.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **108** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Zer epetan, gehienez, aplikatu daiteke Batuz kenkaria?

Erantzuna: Kenkaria sortu zen urtea eta hurrengo 30 urteak. Hau da, zergadunaren kuota nahikoa ez izateagatik onura fiskal hori sortzeko aldiaren kendu ez diren Batuz kenkariaren kopuruak hurrengo hogeita hamar urte jarraituetan amaitzen diren zergaldien aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **109** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Badu eraginik Batuz kenkaria izateko eskubidea ematen duten gastu eta inbertsio berberengatik dirulaguntza bat jasotzeak?

Erantzuna: Bai. Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, murrizketa hau egin beharko da: inbertsio eta gastu horiek egiteko jasotako dirulaguntzen gainean portzentaje bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, hain zuzen, 100 eta kenkari hau aplikatzen duen erakundeari aplikatzeko den karga-tasaren arteko diferentziaren ondoriozko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **110** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Normalean, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeagatik kengarria ez den jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergak (BEZ) ez du ematen sozietateen zergaren kenkariak jasotzeko eskubiderik, nahiz eta kontabilitatean haren zenbatekoa ondasun eta zerbitzu horien eskuratze-prezioaren parte izan. Gauza bera gertatzen da Batuz kenkariarekin?

Erantzuna: Ez. Salbuespenez, Batuz kenkariaren oinarria kalkulatzeko, Batuz sistema ezartzeko beharrezkoak diren inbertsioak eta gastuak eskuratzeko prezioaren parte den jasandako BEZ ez-kengarria hartuko da kontuan.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **111** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Enpresa batek Batuz sistema betetzeko egiten dituen gastuek Batuz kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dute?

Erantzuna: Bai. Batuz kenkariak berariaz arautzen du hirugarrenei ondasunak eta zerbitzuak eskuratuz egiten diren gastuei eta inbertsioei dagokien kenkariaren oinarria (batez ere hitzartutako kontraprestazioak osatuko duela adierazten da). Hala ere, Batuz sistema ezartzeko enpresak berak egindako inbertsioek eta gastuek ere ematen dute kenkari horretarako eskubidea. Kasu honetan, kenkariaren oinarria finkatzeko, dagokion ondare-elementuaren ekoizpen-kostuari erreparatu behar zaio.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **113** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Batuz kenkaria egiteko, zergadunak borondatez jaulki behar ditu –2020an edo 2021ean– TicketBAI fakturak?

Erantzuna: Ez. Batuz kenkariaren oinarria 2020. eta 2021. urte naturaletan zergadunak Batuz sistema 2022an betetzeko egindako inbertsioak eta gastuak dira, zergadun horrek 2020. eta 2021. urteetan fakturak TicketBAI sistemarekin borondatez jaulki ala ez.

Batuz kenkaria

Aldaketarik gabe Galdera zk. **115** Azken berrikuspenaren data 2020-09-22

Galdera: Batuz kenkaria bateragarria da gastu eta inbertsio berberengatik dirulaguntzak jasotzearekin?

Erantzuna: Bai. Hala ere, Batuz kenkariaren oinarria kalkulatzeko, murrizketa hau egin beharko da: kenkarirako eskubidea ematen duten inbertsio eta gastu horiek egiteko jasotako dirulaguntzen gainean portzentaje bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, hain zuzen, 100 eta kenkari hau aplikatzen duen erakundeari aplikatzekoa den karga-tasaren arteko diferentziaren ondoriozko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa.

Batuz kenkaria

Berria Galdera zk. **143** Azken berrikuspenaren data 2020-11-11

Galdera: Batuz ezartzeko beharrezkoak diren software eta aplikazioetara egindako harpidetza ordainketek, Batuz kenkaria izateko eskubidea daukate?

Erantzuna: Bai, Batuz ezartzeko beharrezkoak diren software eta aplikazioetara egindako harpidetza ordainketek kenkaria izateko eskubidea daukate, baldin eta ordainketak 2020. eta 2021. urte naturaletan egin badira, hau da, Batuz ezartzea derrigorrezkoa izan baino lehen.